

ONDARROA. Sariak Domu Santu egunaren bezperan banatuko ditue, urriaren 31n



NEKANE AKARREGI

Irabazleen beharrak alde zaharrea irakurriko ditue. Argazkian, Kirmen Uribe idazlea, igaz, epaimahaiaren erabagiaren barri emoten.

Azken agurra idazteko aukerea

Bolo-Bolo aldizkariak testamentu gutun lehiaketeta antolatu dau urrirako, hirugarren urtez

Lore Bengoetxea |

Bolo-Bolo aldizkariak III. testamentu gutun lehiaketeta antolatu dau. Aurten sariak urriaren 31n emongo ditu. Irabazleen beharrak aldizkarian argitaratuko ditue.

Aldizkariako kide Joserra Egiluzek azaldu dau zelan sortu zan ideia, orain dala hiru urte. «Gure jarduerak ez dogu aldizkari hutsera mugatzen. Hortik sortu genduan Zapato Azule jaia. Horrezaz ganera, beste ekarpen bat egin nahi izaten dogu. Beste aldizkari batzuek hartutako bideari jarraituta, li-

teratur lehiaketeta sortu genduan 1999an sormenezko beharrak bultzatzearen», gogoratu dau.

Heriotzea aukeratu dabe Bolo-Bolokoek gaitzat. «Gauza normala da; bizitzako parte bat. Desmitifikatu egin nahi dogu. Ganera, joko handia emoten dauen gaia da. Guk nondik nora jo behar dan esaten dogu: beste guztia egileen esku dago», azaldu dau Egiluzek.

Aurten sariak urriaren 31n banatuko ditue, eta ez zemen-diaren lehenean, orain arte egin izan daben modura. «Lau egunekoz zubi dago, eta askok he-

rritik alde egingo dabela uste dogu. Arrazoi horregaitik egun batez aurreratu dogu ekitaldia», dino aldizkariako.

Aurten be «bolo» sariak banatuko ditue, «antolatzen doguzan lehiaketetan egiten dogun lez. Dana dala, diru saria be egongo da jokoan». Saritutako beharrak aldizkarian argitaratuko ditue.

Baldintzak

Antolatzaileek adierazo dabenez, idazlanak euskeraz idatzi behar izango dira, eta Din A4 formatoan aurkeztu beharko dira, makinaz edo ordenagailuz

idatzita. Orrialde bi baino motzagoa izan beharko da.

Beharrak urriaren 2rako emon beharko dira, e-mailez bidalita (bolobolo@euskalnet.net), edo Ondarroako Udaleko Euskera zerbitzura bideratuta.

Sari bi egongo dira jokoan: alde batetik, 50.000 pezeta Euskal Herriko beharrik onenari, eta bestetik, 25.000 peze-ta Ondarroako egilerik onenari. Bientzat gordeko da «bolo» oroigarria.

Sari banaketeta Kofradi Zaharren aurrean izango da, urriaren 31n (Domu santu bezperan), arratsaldeko 20:30ean.

LAGURAEAN

AULESTI

Markinarako bidean konponketak egin ditue

Aulestiko Udalak jakitera emon dauenez, Markina-Xemeinerako bidean galipot kapea bota dabe azken egunetan. Okamika auzotik Munibarrera arteko zatian be gauza bera egiten dihardue. Beste alde batetik, Gizaburuaga eta Oleta arteko bidea zabaldu eta behar dan moduan ipinteko zereginen hasiko dira laster.

ONDARROA

Sei gai aztertuko ditue, bihar, Udalaren Osoko Batzarrean

Ondarroako Udalak batzarra egingo dau, bihar, arratsaldeko 19:30ean. Bertan Arta Bide 18ko lokala Antiguako Ama Alkarteari lagateko kontratua ontzat emongo dabe. Ganera, Kamiñalde-Iturribarri etxebizitzetarako aldean arauen aldaketeta aztertuko dabe.

1951n jaiotakoek bazkaria antolatu dabe

Hilaren 29an bazkarian batuko dira 1951n jaiotakoak. Gertaerea Mutrikuko Kai jattetxean ospatuko dabe. Izena Kafe Marinaran emon behar da, hilaren 15a baino lehen.

Internet ikastaroa egiteko eskaintza, arrakastatsua

Lea Artibai ikastetxeak jakitera emon dauenez, Ondarroako Zubi Zahar ikastolan internet ikastaroa egingo dauen taldea osatu dabe, izena emoteko epea zarratu baino astebate lehenago. Dana dala, izenak hartzen jarraitzen dabe, urrian beste ikastaro bat antolatzeko asmoa dagoalako.

Kresala Kultur Alkartek ikastaroen eskaintza zabala kaleratu dau aurtengo ikasturterako

L.B. |

Ondarroako Kresala Kultur Alkartek aurtengo ikastaroen eskaintzearen barri emon dau. Izena emoteko epea irailaren 17tik 28ra bitartean egongo da zabalik. Hurrengo hileetan ikastaro bereziak be prestatuko ditue.

«Kalidadezko euskal kultura herrikoia zabaldu nahi dogulako, zatoz!», dino Kresalakoek banatutako kartel adierazgarriak. 2001-2002ra begira hain-

bat ikastaro antolatu ditue. Holan, bandako musika tresnak; euskal kantuak kitarragaz; akordeoia; haur eta gazte dantza taldea; berretze eta luzaketea; nagusientzako herri dantzak; musika tailerra; solfaketea; pianoa; txistua; trikitia eta panderoa erakutsiko ditue, aurreko urteetan letxerik.

Ikastaro bereziak

Beste alde batetik, Kresala Kultur Alkartekoek urtean zehar ikastaro gehiago antolatzeko

asmoa daukiela aurreratu dabe. Dinoenez, txalapartearen gane-ko ikastaroa be eskainiko dabe datozen hileetan. Horren gane-ko informazioa ikasturteak aurrera egin ahala emongo dabela zehaztu dabe.

Izena emoteko Arta Bide kaleko 23. zenbakira jo behar da, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Beste aukera bat be badago. Kultur Alkartekoek ikastaroen gane-ko gorabehera guztiak azalduko ditue 94 613 4114 telefonoan.

AGENDEA

ONDARROA

Erakusketea: Udal Erakusketa Aretoan Euskadin arriskuan dagoan ornodunen gane-ko erakusketea dago hilaren 13ra arte, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Ekimena Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak antolatu dau.

Marmitako txapelketea: Ondarroako Zubi Zahar ikastoleak XXIV. Euskal Herriko marmitako txapelketea antolatu dau, hilaren 23rako. Izena eman nahi dabene-ko telefono bi daukie: 900 50 42 46 edo 94 683 14 16. Epea barikuan amaitzen da.

Arrantza txapelketea: Zapatuan jokatu-ko da, arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara. Izena ikastetxeetan emon

behar da, edo Arrigorri Itsas-Arrantza alkaterearen bulegoan, goizeko 10:00etatik 12:00etara.

MARKINA-XEMEIN

Trikitixa ikastaroak: Ikasturte barriari begira, trikiti eta pandero ikastaroak antolatu ditue Markina-Xemeinen. Klaseak Uribitarte 11n izango dira. Izena telefono honetan emon behar da: 94 689 52 10 97. **Uhagoneko proiektuak:** Udaletxean ikusi leitekez Uhagon kulturguneko lehiaketako saridunak.

Dirulaguntza eskaera: Udal Euskera Zerbitzuak dirulaguntzea emongo deutse 2000ko urritik 2001eko iraila bitartean euskera ikastaroren bat eginda daukienei. Eskaerak 28rako aurkeztu behar dira.